

FUNTSEZKO ELKARTEA

Proiektu bar ondo joatea izan nahi ezkeru, beharrezkoa da hainbat kide eta hornitzaile nagusi aurkitzea eta elkarrekin lankidetzan egotea. Harreman estrategiko hauek oso garrantzitsuak dira proiektu osoaren arrakastan, baliabideak, esperientzia eta beharrezko laguntza eskaintzen baitute.

Gure produktua kontuan hartuz, dronak erabiltzeko, gure lehiakide ez diren enpresarekin harremanetan jartzea garrantzitsua da, esperientzia handia duten enpresak zehazki, gure produktua berria delako eta dronen erabilera egokia izan behar duelako.

Teknologia hornitzaileekin harremanetan egotea ere oso garrantzitsua da gure proiektua ondo garatzeko. Horiek hornitzen dute hardware, software eta teknologia-ekoizpena, eta konfiantzazko teknologia hornitzaileekin lankidetzak bermatzen du gure proiektuak behar duen tresna eta azpiegitura egokia izatea, beraren eraginkortasun eta errendimendu orokorrean lagunduz.

Bestalde, Logistika eta hornikuntza-katearen zerbitzu hornitzaileekin harremanetan egotea, garrantzitsua izango litzateke gure produktua norabait bidali beharra izango bagenu, batez ere, proiektua aurrera joan ala munduan zehar zabaltzen badugu. Hauek bermatzen dute produktuak behar bezala eta egoera onenean iristen direla, eta horrek hornikuntza-katearen eraginkortasuna eta bezeroen lasaitasuna bermatzen ditu.

Finantza-erakundeekin eta finantza-bazkideekin ere harremanak izateak asko lagunduko liguke, proiektuaren beharretara egokitutako finantza-baliabideak izatea eta harreman positiboa mantentzea proiektuaren etengabeko garapenari laguntzen baitigu.

Hau gutxi balitz, erakunde arautzaileekin eta gobernu-erakundeekin ere harremanetan jartzea oso garrantzitsua da, batez ere ingurune arautuan jarduten den proiektu batean. Horiek baimenak eta legezko arauak betetzean laguntzen dute, proiektua arautzen duten legezko arazoak saihestuz. Gu enpresa berri bat izanik, egokia izango litzateke beste erakunde batek lege eta araudietan laguntzea, gure ezagutzak murriztuak baitira.

Azkenik, proiektuaren arrakasta izateko, hainbat bazkide eta hornitzaile aurkitzea eta elkarrekin lankidetzan egotea oso garrantzitsua da. Harreman estrategiko hauek baliabideak, ezagutzak eta laguntza kritikoa eskaintzen dute, proiektuaren bilakaera indartzen dutenak eta helburuak lortzeko gaitasuna hobetzen dutenak.

